



Mondragon
Unibertsitatea



MEMORIA

2019/2020
IKASTURTEA



www.mondragon.edu



ERREKTOREAREN AGURRA

Mondragon Unibertsitatea unibertsitate kooperatiboa da, irabazi-asmorik gabea eta onura publikokoa, eta, beraz, gizarte osoari irekia. Mondragon Unibertsitatean integratutako unibertsitate kooperatiboa da, eta gizarte justuago eta iraunkorrago baten garapenean eragile aktibo izatea ahalbidetu diguten balioak eta printzipioak partekatzen ditugu.

Mondragon Unibertsitatearen eginkizun nagusia gizartea eraldatzea da, pertsonen prestakuntza integralaren bidez eta ezagutza sortuz eta transferituz. Eraldaketa horrek giza garapen iraunkorraren eredu bat bultzatzen du, non gizakia gure ekintzaren ardatz den. Horretarako, unibertsitate praktikoa, berritzailea eta ingurunearekin konprometitua eraikitzen dugu, pertsonen garapenean zentratua, enpresaren eta gizartearen beharretara bideratua.

Ikasturtearen memoria aukera bikaina da iazko gertaera garrantzitsuenak erakusteko eta, horrela, gure unibertsitatearen historiarako kontzienteki uzteko. Ildo horretan, 2019-2020 ikasturtea nekez ahaztuko dugun ikasturtea izan da. Sars-covid-2 birusak eta sortutako pandemiak eragin handia izan zuten 2019-2020 ikasturtean, bai osasun-arloan, bai eremu publikoan, bai unibertsitateko bizitzan eta ikasketetan.

Martxoaren 12an, ostegun arratsalde batean, aurrez aurreko eskolak ematen ari ginen eta hurrengo astelehenean, 5.500 ikasle baino gehiago online klaseak jasotzen ari ziren. Asteburu bat izan genuen, ikasleen, irakasleen eta langileen etxeak campus bihurtzeko.

Benetan, harro gaude egin genuen lanarekin; izan ere, lan horretan, gazteek, unibertsitateko langileekin batera, erronka berri bati egin behar izan zioten aurre. Une horietan erakutsi genuen gure balioak, hala nola lankidetzeta, konpromisoa, parte-hartzea eta elkartasuna, erronka handiei aurre egiteko armarik boteretsuenak direla.

Pandemiak eragin handia izan zuen gure jardueretan 2019-2020 ikasturtean, eta ahaleginak egin behar izan genituen gorabeherak epe laburrera konpontzeko, baina luzarora begiratu gabe. Eta, horrela, aurreko ikasturtean ere denbora ona eskaini genuen unibertsitate eta gizarte gisa datozen urteetan izango ditugun erronkei buruz hausnartzeko.

Konpromisoz, ilusioz eta anbizioz beteriko hausnarketa-prozesua izan da, eta euskal gizarteari zerbitzu handiagoa eta hobe emateko helburua berresten dugu, ikasle gehiagok Mondragon Unibertsitatean prestakuntza jaso dezaten ahalbidetzeko eta inor ez dadin geratu gure unibertsitatean ikasi gabe, ez izaera sozialagatik, ez ekonomikoagatik. Profesionalen prestakuntza eguneratzeko zerbitzu gehiago eta hobe eman nahi dugu, eta ezagutza gehiago garatu, bereziki gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Gure ikuspegia da onenekin lehiatu eta nazioarteko erreferentzia bihur daitekeen unibertsitatea izatea.

Horregatik, hezkuntza-berrikuntzan sakontzen jarraituko dugu, unibertsitate praktikoa eta dinamiko bat izateko, pertsonen eta herrialdearen beharretara



ra bideratutako ikasketa eguneratuak dituen, eta gure ikasleen enplegarritasun-tasa handiei eusten diena. Erronka hori unibertsitatearen beharrezko digitalizazioari gehitzen zaio. Digitalizazioa unibertsitate-prestakuntza presentzian eraginkortasunez integratzea izango da gure erronketako bat datozen urteetan.

Gainera, gure DNAren ildotik, hurrengo aldi estrategikoan gure ikerketa- eta transferentzia-ereduan aurrera egiteko lan egingo dugu, ezagutza sortzeko eta Euskadiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Horretarako, baliabide gehiagorekin bultzatu behar dugu gure etengabeko prestakuntza, eta, batez ere, gure ikerketa- eta transferentzia-ildoan espezializazioa eta bikaintasuna. Gure enpresak onenekin lehiatzea nahi badugu, guk ere onenen artean egon behar dugu.

Eta, azkenik, unibertsitate irekiagoa eta globalagoa izan nahi dugu eta izan behar dugu, gure eragina handitzeko irrikaz, aliantza gehiagorekin, hala nola LEINNe laborategietan Mexikon, Txinan edo Korean, edo Bilbao AS Fabrik campusa bezalako proiektuetan.

Laburbilduz, 2019-2020 ikasturtean aldi estrategiko bat itxi dugu etorkizunari begira, eta aurreko aldiari buruzko balorazio positiboa egin dugu; izan ere, Mondragon Unibertsitateak bere proiektua indartu du Euskadin, ikasleen % 25eko hazkundearekin eta enpresekiko I+G jardueran % 29ko hazkundearekin.

Oinarri horiek posizio onean jartzen gaituzte kooperatiba-unibertsitate globalago eta mundura irekiago bihurtzeko, nazioarteko erreferente gisa kokatzeko, ikaskuntza-esperientzia malgu eta pertsonalizatua eskaintzen duen eta enpresarekin lankidetzan estuan aritzen den unibertsitate berritzaile gisa.

Baina 2019-2020 ikasturtea, gainera, paregabea izan da, pandemia izan baita herrialde eta gizarte gisa hamarkada askotan izan dugun erronkarik handiena.

Batzuek diote pertsona eta belaunaldi handiak beren ezaugarri onenak eskatzen dituzten egoeretan sortzen direla. Belaunaldi horietako bat prestatzen ari garela uste dut, horietan inbertitzen dugu, jarrai dezagun gure indar guztiekin herrialde honen etorkizuna gidatuko duten pertsonak prestatzen. Epe laburreko, ertainerako eta, nola ez, luzerako prestakuntza, non enpresek, erakundeek eta unibertsitateak elkarrekin lan egingo dugun, herrialde hau herrialde industrial aurreratu eta bidezkoen eredu bihurtu nahi duten gazteak prestatu, atxiki eta erakartzeko gai izango den sistema batean. Horretan gabiltza, eta jarraituko dugu, Mondragon Unibertsitatea osatzen dugun guztiok: langileak, ikasleak eta enpresak.

Eta sarrera honi amaiera emateko, eskerrik beroenak guztioi 2019-2020 ikasturtean egindako ahalegin ordainezinatik.



AURKIBIDEA



6

**HISTORIA
PIXKA BAT**



8

**TXOSTEN
AKADEMIKOA**




13

**IKERKETA ETA
GARAPENA**



15

**BERRIKUNTZA ETA
EKINTZAILTZA**



17

DIGITALIZAZIOA



18

**GIZARTEAREKIN
KONPROMISOA**



19

**UNIBERTSITATEA-
ENPRESA HARREMANA**



20

**ESKOLAZ KANPOKO
JARDUERAK**



21

**ATXIKITAKO
IKERKETA ZENTROAK**



23

**DATU EKONOMIKO
AIPAGARRIAK**



24

**ORGANO SOZIALAK ETA
ZUZENDARITZAKOAK**

HISTORIA PIXKA BAT

Mondragon Unibertsitatea unibertsitate gaztea da, 1997an sortua eta irakaskuntzan eskarmentu handiko eta ibilbide luzeko hiru hezkuntza-kooperatibak bultzatua: Mondragon Goi Eskola Politeknikoa 'Jose M. Arizmendiarieta' Koop. Elkartea., ETEO Koop. Elkartea eta Irakasle Eskola Koop. Elkartek.



1943an hasi zen lanean **Goi Eskola Politeknikoa**, aita Jose Maria Arizmendiarrietak –Arrasateko kooperatiben sustatzaileak– Gizarte garapenerako mugimendu bat abiarazi zuen ikastetxe hark: gazteen trebakuntza oinarri hartuta, enpresa sorrera bultzatu zuen, lankidetzaren bidez betiere.

Goi Eskola Politeknikoaren ingeniaritza eta ikerketa teknologikoko jarduerak, industria ingeniaritza eta IKT, ekoingeniaritza eta osasunaren alorretan banatzen dira.

Gaur egun, 3 campus ditu Gipuzkoan: jatorrizkoa Arrasaten, 2001ean Ordizian irekitakoa eta 2013/14an Donostialdean -Orona Ideon- irekitakoa.

Enpresagintza Fakultatea, lehen ETEO Koop. Elkartea zena, 1960an hasi zen lanean Oñatin, aita Jose M. Arizmendiarrietak bultzatutako gazte-talde baten ekimenez.

Administrazio eta enpresa alorretako trebakuntza ematea izan du eginkizun nagusia fakultate horrek, batez ere enpresen kudeaketa, administrazio eta zuzendaritza arloetan. Gainera, azken urteotan, ekin-tzailetasuna fakultate honetako ikerketa eta formazio programen oinarritzako lerroa bihurtu da.

Bi campus ditu Gipuzkoan: jatorrizkoa Oñatin eta 2003ko apirilean Irunen inauguratu zen Bidasoaldekoa. Era berean, eta zehazki ekintzailetasunaren arloan, 10 laborategi dauzka; Oñati eta Iruneoaz gain, Bilbo, Madril, Bartzelona, Valentzia, Shanghai, Puebla, Seul eta Berlinekoak.

1978an sortu zen, Eskoriatzan, Irakasle Eskola, gaur egun **Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate** bihurtua. Irakaskuntzarako profesionalak prestatzea zuen hasieran helburu baina ikus-entzuzko komunikazioaren ezagutza arloarekin hedatzen joan da. Azken honek bere eraikin propioa du 2012-13 ikasturteetik aurrera, fakultateak Aretxabaletan 2013ko maiatzean inauguratu zuen campus berria.

2010ean Mondragon Unibertsitateko **Gastronomia Zientzien Fakultatea** – Basque Culinary Center gehitu zen Donostian eta gaur egun, munduan aitzindaria den erakunde akademiko bat da. Bertan, Gastronomia arloan, gradua, unibertsitate masterra eta doktorego programa ematen dira eta helburu nagusiak, goi-mailako prestakuntza ematea, ikertzea, eta gastronomia eta elikadura berritzea eta sustatzea dira.

Gainera, 2013-2014 ikasturteetik, unibertsitateak Bilbon du kokapen berri bat, **BBF (Bilbao Berrikuntza Faktoria)**, non, Berrikuntza eta Ekintzailetasunaren inguruko eskaintza dagoen.

Campus berri horrek, espazio berean eta modu integratuean, unibertsitate-prestakuntza eta enpresa-ekimen berritzaileak bultzatzen dituzten pertsonen komunitatea biltzen ditu, ikaskuntza, sormena eta haien arteko lankidetzaren modu naturalean gerta daitezkeen behar diren baldintzak sortuz.

Azken batean, eta faktore horiek guztiak konbinatuz, Bilbao Berrikuntza Faktorian sortutako ingurune bideratzaileak enpresa-proiektu berrien garapena bultzatzen du.

Bestalde, zenbait enpresa eta erakunde laguntzaile ere baditu Mondragon Unibertsitateak. Azpimarratzekoak dira ikerketa teknologikoaren alorrekoak diren Ikerlan eta Ideko; biak ere izen handikoak nazioartean eta ezinbestekoak Unibertsitatearen antolakuntza-sisteman.

Era berean, MONDRAGON kooperatiba-taldearen laguntza ere badu unibertsitateak, talde horretako kide baita, eta Ulma Taldea Koop. Elkartearena, Gizabidea Fundazioarena eta Debagoieneko Mankomunitatearena, Unibertsitatearen bazkide laguntzaileak baitira guztiak.

TXOSTEN AKADEMIKOA

Gaur egun Mondragon Unibertsitateak duen formazio eskaintza lau taldetan bana dezakegu. Alde batetik, Graduoko eskaintza, Batxilergotik eta Goi Mailako Heziketa Zikloetatik datozen gazteei zuzendutakoa; bestetik, Unibertsitate Masterren eskaintza, gradua bukatu ondoren, espezializazio bila dabiltzan pertsoneri zuzendutakoa; hirugarrenik, doktorego eskaintza, ikerketan interesatuentzat eta bukatzeko, profesionalentzako prestakuntza.



GRADUKO ESKAINTZA

2019-2020 ikasturtean, 16 Graduko titulazio eskaini ditugu, bere 6 ezagutza arloetan: ingeniaritza, enpresa kudeaketa, ekintzailetasuna, komunikazioa, hezkuntza eta gastronomia.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA GRADUAK

- Mekanikako Ingeniaritza (EUR-ACE) - DUALA
- Industria Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritza (EUR-ACE) - DUALA
- Industria Antolakuntzako Ingeniaritza (EUR-ACE) - DUALA
- Industria Elektronikako Ingeniaritza - DUALA
- Informatikako Ingeniaritza - DUALA
- Energiaren Ingeniaritza - DUALA
- Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza - DUALA
- Ingeniaritza Biomedikoa - DUALA
- Ingeniaritza Mekatronikoa - DUALA

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA GRADUAK

- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (MyGADE) - DUALA
- Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN)
- Bussines Data Analytics (BdA)

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA GRADUAK

- Ikus-Entzunezko Komunikazioa
- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA GRADUAK

- Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak

UNIBERTSITATE MASTERREN ESKAINTZA

Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako Esparruak ezarritako unibertsitate-sistema berritik aurrera, Unibertsitate Masterrak graduaren eta doktoregoaren arteko irakaskuntza-maila betetzen du.

Europako Goi Mailako Hezkuntzako Esparruan ezarritako unibertsitate-sistema berriarekin aldatu egin zen graduondoko ikasketen eredua, eta horrek ekarri zuen berrikuntza nagusietako bat da Unibertsitate Masterra, Graduaren eta Doktoregoaren arteko hezkuntza maila.

Espezializatutako prestakuntza da, diziplinarreko ikuspegia duena. Espezializazio profesionala edo akademikoa erdiestea, atribuzio profesionalak lortzea edo ikerketa-lanbideari ekitea ditu helburu doktoregorako sarreraren bidez.

Mondragon Unibertsitateko Unibertsitate Masterren bidez ikasleek prestakuntzan aurrera egiten dute, eta gaur egun enpresa eta erakundeek eskatzen dituzten jardueretan edo jakintza eremuetan espezializatzen dira. Gainera, Europar Batasuneko herrialde guztietan balioa duen titulu ofiziala eskuratzen dute, alderdi akademikoan edota lanekoan ere beste edozein herrialdetan onargarri dena.

Unibertsitate Masterrek lan-merkatu bideratutako espezializazioa eskaintzen dute, gorantz doazen eta estrategikoak diren sektoreetan eta ezagutza arloetan, hain zuzen. Ikasketok, gainera, nazioarteko ikuspegia eta arrakasta duten lanbideekiko eta enpresakiko lotura sakona dute eta etorkizuneko ateak irekiko dizkiete ikasleei.

2019-2020 ikasturtean, bereziki aipatu behar da Ikaskuntza eta Berrikuntza Errazteari buruzko Unibertsitate Masterraren ezarpena, Team Labsekin lankidetzan, Madrilen eta Eskoriatzan.

Guztira, 15 Unibertsitate Master eskaini dira, hauetatik 2 diploma bikoitz bezala. Azken hauek, Frantziako unibertsitateekin eta ingeniartzaren alorrean.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- Diploma bikoitza (aukera): Industria Ingeniaritza Unibertsitate Masterra (INSA Toulouse / ECN Nantes) - DUALA



- Diploma bikoitza (aukera): Energia eta Potentzia Elektronika Unibertsitate Masterra (ENSEEIH Toulouse) - DUALA
- Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterra
- Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoa Unibertsitate Masterra - DUALA
- Teknologia Biomedikoak Unibertsitate Masterra – DUALA
- Robotika eta Kontrol Sistemak Unibertsitate Masterra – DUALA
- Datuen Analisia, Zibersegurtasuna eta Hodei-Konputazioa Unibertsitate Masterra -DUALA-

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

- Kontabilitate eta Finantza Zuzendaritza Unibertsitate Masterra
- Marketin Digitala Unibertsitate Masterra
- Erakundeen Nazioartekotzea Unibertsitate Masterra
- Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoa Unibertsitate Masterra

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan

irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Masterra (Duala)

- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra (LIT)
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean Unibertsitate Masterra (online)

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA – BASQUE CULINARY CENTER

- Gastronomía Zientzietan Unibertsitate Masterra

DOKTOREGOA

Ikerketan interesa duten pertsonak ingeniarietzarekin, kudeaketarekin, hezkuntzarekin eta gastronomiarekin zerikusia duten lau doktorego-lerro eskuratu ahal izango dituzte Mondragon Unibertsitatean.

- Ingeniaritza Aplikatua Doktorego Programa
- Erakundeen Kudeaketa Aurreratua eta Gizarte Ekonomia Doktorego Programa
- Berrikuntza eta Esku-Hartzea Hezkuntzan Doktorego Programa
- Gastronomía Zientziak Doktorego Programa

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

Urtez urte, Profesionalentzako Prestakuntza esparrua ere garatzen jarraitzen dugu eta gaur egun, profesionalentzako eskaintzan, zerbitzu integral bat emateko gai gara, ikastaro presentzialak, onlinekoak eta erdipresentzialak eta In Company formazioa eskainiz. Gainera, kontuan izan behar dugu online proiektuak izan duen garapenak lagundu duela eskaintza hau borobiltzen, lanean dagoen profesionalari ikastea, bititza pertsonala eta aldi berean lan egitea ahalbidetuz.

2019-2020 ikasturtean, zehazki, unibertsitate-master bat eskaini da, online edo aurrez aurre egiteko aukerarekin, 15 master profesional, 4 unibertsitate espezializazio diploma, 16 unibertsitate aditu ikastaro, lau gradu (guztiak online) eta gradura egokitzeko 3 ikastaro (online), bai eta iraupen laburreko zenbait ikastaro ere, presentzialak zein online, komunikazioaren, kontabilitatearen eta finantzen, kultura eta gizartearen, enpresen eta erakundeen zuzendaritza eta kudeaketaren, Gizartea eta kooperatibismoa, hezkuntza, elektronika eta energia, estrategia, ekintzailtza eta berrikuntza, gastronomia eta sukaldaritza-arteak, jatetxeen kudeaketa eta berrikuntza, kudeaketa eta antolaketa industrialak, informatika, telekomunikazioak eta sistema txertatuak, ingeniariak mekanikoa eta fabrikazio-prozesuak, lidergoa eta pertsonen kudeaketa, ardoaren marketina eta marketina eta salmentak.

Arlo honetan eskaintako ikastaroetan, oro har 7.031 ikasle izan ditugu 2019/2020ko ikasturtean.

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZAKO ESKAINTZA

UNIBERTSITATE MASTERRAK

- Enpresen Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza Unibertsitate Masterra (Online)

MASTER PROFESIONALAK

- MBA Executive
- Coaching-ean Master Profesionala
- Fabrikazio Gehigarri Industrialean Master Profesionala
- Ekoizpen Zuzendaritza Master Profesionala
- Logistika Integralean eta Erosketetan Master

Executiboa

- Jatetxeen Berrikuntza eta Kudeaketa Master Profesionala
- Jatetxeko Gozogintza eta Sukaldaritza Gozoan Master Profesionala
- Sukaldaritza Hobetzeko Master Profesionala
- Sommelierrean eta Enomarketinean Master Profesionala
- Turismo Gastronomikoan Master Profesionala
- Sukaldaritza, Teknikan eta Produktuan Master Profesionala
- F&B (Hotelen Elikadura eta Edariak) Zuzendaritza Master Profesionala
- Zibersegurtasunean Master Profesionala
- Sistema Elektronikoen Aurreratueta Master Profesionala
- Kirol-enpresako Berrikuntza eta Kudeaketa Master Profesionala

UNIBERTSITATE ESPEZIALIZAZIO DIPLOMAK

- Zuzendaritza eta Eraldatze-prozesuen Kudeaketa Unibertsitate Espezializazio Diploma
- Lidergoan Unibertsitate Espezializazio Diploma
- Erakundeen Ikaskuntzaren Kudeaketa Unibertsitate Espezializazio Diploma
- Hezkuntza Kooperatiboan Unibertsitate Espezializazio Diploma

UNIBERTSITATE ADITU IKASTAROAK

- Kirol Hezkuntzaren Berrikuntza Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Kooperatibagintza Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Euskal Kulturgintzaren Transmisioan Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Hezkuntzak Biziberritzeko Estrategietan Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Herrigintzaren Berrikuntza Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Zerbitzulari Lanean eta Koktelaria Modernoan Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Areto Zuzendaritza eta Bezeroen Arretan Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Lean Six Sigma Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Proiektuen Kudeaketa Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritza Unibertsitate Aditu Ikastaroa

IKASKETA OFIZIALETAN MARIKULATUTAKO IKASLEAK

5.512

- Industria Antolakuntzan Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Talde eta Erlazio Sistemen Coaching-ean Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Lidergoan eta Talde Lanean Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Kirol Enpresa Berrikuntzan eta Errendimendu Altuko Taldeen Kudeaketan Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Arrisku Kapitalean eta Startups-etan Unibertsitate Aditu Ikastaroa
- Diziplinarteko Ekintzailertzan Changemaker Lab Unibertsitate Aditu Ikastaroa

GRADUAK ONLINE

- Haur Hezkuntza Gradua (Online)
- Lehen Hezkuntza (Online)
- Hezkuntza beste Gradu bat edo beste aipamen bat
- Entzumenaren eta Mintzairaren Nahaste eta Esku-Hartzea

GRADURA EGOKITZAPEN IKASTAROAK ONLINE

- Irakasleentzako Gradurako Egokitze Kurtsoak
- Ingeniaritza Mekanikoko Gradura Egokitzeko Ikastaroa (Online)
- Industria Elektronikako Ingeniaritza Gradura Egokitzeko Ikastaroa (Online)

MARIKULATUTAKO IKASLEAK

2019-20 ikasturtean, 5.512 ikasle matrikulatu dira Mondragon Unibertsitateko titulazio ofizialetan:

- 4.682 ikaslek egin dituzte gradu ko unibertsitate-ikasketak
- 830ek graduondoko ikasketa ofizialak egin dituzte, bai unibertsitateko masterrak bai doktoregoa

Gainera, 581 ikaslek graduondoko ikasketak egin dituzte unibertsitatearen berezko tituluetan.

Guztira, 316 ikaslek egin dituzte ikasketak online/erdi-presentziatzako modalitatean.

Ikasketa ofizialetan matrikulatutako ikasle kopuruaren bilakaera:

2012-13	4.021
2013-14	4.260
2014-15	4.296
2015-16	4.226
2016-17	4.689
2017-18	4.804
2018-19	5.125
2019-20	5.512



IKERKETA ETA GARAPENA

Goi Eskola Politeknikoan I+T jardueratik eratorritako diru-sarrerak mantendu egin dira eta nahiz eta COVIDen eragina izan, enprekin epe luzerako lankidetzako ikerketa-programak finkatzea arrakastatsua dela erakusten du bilakaera horrek. Programa horien barruan ikerketa-proiektuak lantzen dira, eta produktu, prozesu eta zerbitzu berritzaileak izaten dira horien emaitza. Era berean, enpresan lan egingo duten gazteen trebakuntza jorratzen da lankidetzak-ikerketako programa horietan. Hala, doktorego-tesi gehienak esparru horren barruan finantzatzen dira.

Proiektu lehiakorrei dagokionez, bereziki nabarmendu daitezke Elkartek, H2020 eta Gipuzkoako Foru Aldundiko deialdietan parte hartu dutenak, non, emaitzak oso onak izan diren.

Euskadiko Espezializazio Adimenduaren Estrategian (RIS3) funtsezkoak diren Garraioaren, Manufaktura Aurreratuaren eta 4.0 Industriaren eremuetako proiektuak dira, eta horrelakoei esker, ezagutza sortzen jarraitu ahal izango dugu enpresen beharrekin bat datozen arlo zientifiko eta teknologikoetan.

Ikerbasque doktoretza ondoko ikertzaileentzat egindako deialdien barruan, Goi Eskola Politeknikoak hiru Research Fellows eta ingeniari eta zientzia aeroespazialean fluidoan mekanika aplikatzen esperientzia handia duen ikertzaile senior bat sartu ditu.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, diziplinarteko ikerketa- eta transferentzia-proiektuen aldeko apustu sakona egin da 2019/2020 ikasturtean.

Horrela, Gizarte, Hezkuntza eta Kooperatibismoa eremuetan hurrengoak azpimarratuko genituzke:

Alde batetik, Hezkuntza berrikuntzaren alorrean ikaste eta irakaste prozesuen eraldaketa sustatzeko proiektu esanguratsuak jarri dira martxan. Hezkuntza arautuan, berrikuntza metodologikoan eta hizkuntza proiektuen garapenean eta lanbide heziketan, kompetentzietan trebatzeko proiektuak garatuz adibidez. Bestalde, hezkuntzaren digitalizazio prozesuetan ere ekarpen esanguratsua egin da aurten: online ereduak eta eredu hibridoak garapetzeko ikastaro eta proiektu ugari garatu dira eta kompetentzia digitalak sustatzeko proposamenak jarri dira martxan.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean garatutako hainbat ikerketa-proiektu ere burutu dira. Aipatzekoak dira, hala nola, profil kooperatiboa neurtzeko garatutako ikerketa, hezkuntza arautuan talentuaren definizioan egindako lana edo Big Data eta Inteligentzia Artifiziala erabiliiz, eta ikasleen interesetan oinarrituta, hezkuntza pertsonalizatuaren inguruan egindako ikerlana.

Enpresagintza Fakultatearen esparruan, honako jarduera hauek nabarmendu behar dira: as Fabrik proiektu estrategikoaren inguruan, aukera-espazioak identifikatu dira digitalizazio industrialera bideratutako zerbitzu aurreratuen eremuan, eta horiek ustiatzeko, enpresen arteko aliantzak sortu dira, bai eta ekintzailtzeko eta barne-ekintzailtzeko 36 proiektu berri ere. Gainera, ekonomia zirkularreko proiektuen ildo berri bat abiarazi da, itsasoko plastikoak industria-era-



bileretarako berreskuratu eta errebalorizatzearekin, industria-sinbiosiarekin eta ohiko negozio-ereduak negozio-eredu zirkularretara igarotzearekin lotuta.

Sakontzen ari den hirugarren ardatz sektoriala mugikortasun jasangarria da, bai industria-mailan, banakako edo lankidetzako eskaintza esmartizatuz eta zerbitzizatuz, bai hiri-lurraldearen mailan.

Negozio-datuen erabilerari eta analisiari buruzko ikerketaren esparruan, Fakultatea enpresei laguntza ematen ari da baliabide garrantzitsu hori estrategikoki erabil dezaten, bai bezeroarekiko ezagutzari eta harremanari dagokionez, bai negozioaren funtsezko prozesuetan erabakiak hartzea optimizatzeari dagokionez.

BCC Innovation-en ikerketa-ildoek sektorearen bi erronka handiei erantzun nahi diete: Elikadura, gure osasuna eta ongizatea kudeatzeko tresna gisa, eta jasangarritasuna, bereziki "Food waste" delakoaren errebalorizazioari dagokionez. Gainera, eremu sensoriala funtsezkoa da BCC Innovation-entzat, kontsumitzaileari gehien gustatzen zaizkion elikagaien ezaugarriak edo, are gehiago, zer emozio sorrarazten dituzten aztertzeo aukera ematen baitu.

Proiektu aipagarrienetako batzuk hauek dira: Gatrovalocal proiektua, erabiltzen ez diren euskal

barietate tradizionalen errebalorizazioa bideratua; Neurasopera, garuneko erantzunaren eta estimulu gozoren erantzun emozionalaren arteko korrelazioa aztertzea helburu duena; eta Inarsalud proiektua, elikagai prozesatuak elikagai osasungarrietara birformatzera bideratua.

Gainera, euskal unibertsitate-sistemaren baitan, Eusko Jaurlaritzak ziurtatutako 11 Ikerketa-talde izan ditu Unibertsitateak, aurreko deialdian baino 2 gehiago, horietako 8, A taldekoak gainera.

Bikaintasun zientifikoaren harira, nabarmendu behar da baita pasa den ikasturtean Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziarekin sinatutako hitzarmena, gure ikerlarien ikerketa jarduera aitortzeko. Bigarren deialdi honetan, ebaluatutako ikerlarien arrakasta-tasa %90etik gorakoa izan da.

Azkenik, 2019-20an egindako ikerketa-proiektuak eta transferentzia-jarduerak 591ra igo dira. Gainera, 139 artikulua argitaratu dira aldizkari espezializatuetan (iaz baino %11,7 gehiago) eta 90 txosten aurkeztu dira Estatuko zein nazioarteko biltzarretan. Bestalde, hainbat jakintza-eremuri buruzko 153 jardunaldi eta biltzar antolatu ditu Unibertsitateak (%26ko hazkundera).

BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILETZA

Berrikuntza eta ekintzailtza esparruetan ere, hainbat egitasmo eta proiektu martxan jarri eta garatu ditu unibertsitateak.

Horren adibide dira, esaterako, Mondragon Unibertsitateko hezkuntza ereduaren Mendeberti 2025 berrikuntza prozesuan emandako aurrerapausuak.

Testuinguru honetan, 2019-20an zehar, hainbat graduatan abian jarri dira Mendeberti 2025 diseinu berriak. Honekin batera ERAGIN ikerketa proiektutik, bere graduiko ikasleen ezaugarri pertsonalak neurtzen hasi da unibertsitatea, bere hezkuntza ereduak ikasleengan eragiten dituen ezaugarriak ezagutzeko.

Bestalde, ekintzailtasuna eta diziplinartekotasuna lantzeko Changemaker Lab programaren bigarren edizioa jarri da abian, non gradu ezberdinetako ikasleek parte hartu duten ekintzailtasun egitasmo honetan.

Eta ekintzailtasunaren esparruarekin jarraituz, zehazki LEINN-Lidergo ekintzailea eta berrikuntza graduari, ikasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan lehenengo ikasturtean sortutako enpresez gain, 2019/20 ikasturtean beste 8 enpresa sortu dituzte aurreko promozioetako ikasle izandakoek. Momentuz 37 enpresa sortu dira, guztira 120 langile baino gehiagorekin. Gainera,

Enpresagintza Fakultateak ekintzailtasunari bideratutako Intraekintzailtza eta Berrikuntza Irekiko Nazioarteko Master Exekutiboa eskaintzen jarraitzen du.

Goi Eskola Politeknikoan ekintzailtasunari lotuta hainbat ekimen garatu dira. Nabarmentzekoak dira RELYCHAIN proiektua, hirugarren sektoreko erakundeei teknologia digitalak ezartzen laguntzeko negozio ideia, TRANSFERINN proiektua, mikroenpresa, enpresa ertain eta ekintzailentzat bideratutako berrikuntza ekosistema baten garapena helburu duena, edota NETCircular+ proiektua, negozio eredu eta balio-katai zirkularren garapena sustatzeko jolasa.

Honez gain, Saiolan Enpresa eta Berrikuntza zentroarekin eta Mondragonekin martxan jarritako "Enpresa Sortu" lehiaketaren laugarren edizioa burutu da, teknologia berrien bidez kirol erakundeen erabilpena eta erabiltzaileen erosotasuna sustatzeko garatutako WELL proiektua irabazle serratuz. Gainera, lehiaketa honen ondorioz AIENE kooperatiba sortu da.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bestalde, Olatukoop eta EHU GEZKlrekin elkarlanean eta GFAREN laguntzarekin, "Kooperatiba Fabrika" programaren laugarren edizioa gauzatu du, ekintzailtza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala sustatzeko helburua duena. Guztira 25 eki-



men ekonomiko kontsolidatu dira eta 49 lagunek egiten dute lan gaur egun enpresa horietan.


Basque Culinary Centerren ekintzaileen nazioarteko VII. Foroa egin da, eta, gainera, ohi bezala, CAction azeleragailuaren 7. edizioa abiarazi da. Bertan, 20 startup berriri eman zaie babes. Gainera, Lab-e espazio berrian, Tabacaleran dagoen living labean, startupek nazioartean garatutako teknologien esplorazioa egin da. Sei izan dira testatutako teknologiak eta 3 Lab-e coworking espazioan instalatu diren startupak.

Azkenik, eta Eusko Jaurlaritzaren Gazte Ekintzailetza programari esker, 11 proiektuk -19 ikasleren parte hartzearekin- ekintzailetza beka bat jasotzeko aukera izan dute.

DIGITALIZAZIOA

Mondragon Unibertsitatea digitalizatzeko erronka estrategikoan aurrera egiten jarraitzeko asmoz, 2019-20 ikasturtean KoLaborategia proiektua garatu eta burutu da. Gizarte digitalerako hezkuntza- eta komunikazio-laborategia da, eta honako helburu hauek ditu: joerak hautematea eta hezkuntza digitala sustatzea, bai eta datorren ikasturtetik aurrera laborategi horren jarduera hartuko duen eraikina eraikitzea ere.

Era berean, hainbat dira digitalizazioaren garapenaren bide honetan 2019-20 ikasturtean jorratutako beste ekimen batzuk ere, hala nola, hezkuntza online eta eredu hibridoaren garapena, hainbat prozesu akademiko osatzeko ikasleentzat sinadura elektronikoa edota ikasle eta langileen mugikorrentzat KONET portala, 17 zerbitzurekin eta gero eta erabiltzaile kopuru handiagoa duena.





GIZARTEAREKIN KONPROMISOA

Unibertsitateak Gizartearekiko duen konpromisoaren testuinguruan, euskararen, genero berdintasunaren eta enpleguaren sustapena dira, besteak beste, Mondragon Unibertsitatean modu esanguratsuan lantzen dituen hiru arlo.

Euskararen sustapenari dagokionean, Mondragon Unibertsitateak konpromisu irmoa erakutsi izan du betik. Horren adierazgarri da, besteak beste, bere eskaintza formatiboa ezaugarritzen duen hezkuntza eredu hirueleduna. Horretaz gain, euskararen normalizazioa lan munduan ere suspertzeko unibertsitateak ahalegin nabarmena egiten jarraitzen du. Horren adibide dira, besteak beste, gure ikasleek enpresa eta erakundeetan egiten dituzten ikasketa amaierako proiektuak euskaraz egiteko unibertsitateak MONDRAGONekin antolatzen duen saria, ikasturte honetan 10.edizioa izanik. Gainera, hainbat dira 2018-19 ikasturtean zehar ere euskararen sustapenerako fakultateetan bideratu izan diren ekimenak eta beste kanpo eragile batzuekin elkarlanean burututakoak (Euskaraldia, Gipuzkoa Berdinago, Jendaurrean Erabili, Euskaragileak, Euskara Eztabaida Txapelketa interunibertsitaria, etab.).

Berdintasunaren eremuari dagokionean, Unibertsitateak urte hauetan agertu duen sentsibilitatearekin eta lanarekin bat etorritik, Mondragon Unibertsitateak Europako beste 9 erakunderekin

batera 2016-17an garatzen hasi eta 4 urteko iraupena izan duen PLOTINA europar proiektua azpimarratu daiteke. Goi-mailako hezkuntzan, ikerkuntzan eta berrikuntzan genero-oreka sustatzea da proiektu horren helburu nagusia. Era berean, ikasturte honetan garatutako ondorengo ekimenak nabarmendu daitezke: komunikazio inklusiboari eta kontratazio ez-sexistari buruzko formazio saioak, sexu-jazarpenaren kontrako protokoloaren diseinua, hainbat testu eta araudiren egokitzapena hizkuntza inklusiboaren ikuspegitik, etab. Gainera, genero ikuspegia txertatzen hasi gara ikerketan eta curriculumean.

Gainera, besteak beste, ikasturtean zehar garatutako ekintza hauek nabarmendu behar dira: komunikazio inklusiboari eta kontratazio ez-sexistari buruzko prestakuntza-saioak, sexu-jazarpenaren aurkako protokoloaren diseinua, hainbat dokumentu hizkuntza inklusiborako egokitzea, emakumeak Stem eremuetara erakartzeko jarduerak, etab. Era berean, genero-ikuspegia txertatzen hasi da bai ikerketa-jardueran bai curriculumean.

Azkenik, eta enpleguaren sustapenari dagokionean, 2019-2020 ikasturtean Unibertsitateak LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin duen lankidetzaren testuinguruan, lanerako orientazio eta enplegu agentzia zerbitzua eskaintzen jarraitu du, 800 ikasletik gora hartatuz.



UNIBERTSITATEA- ENPRESA HARREMANA

Prestakuntza akademikoa-prestakuntza praktikoa binomioaren garapena Mondragon Unibertsitateak inguruko enpresa-ehunarekin duen harreman zuzenaren fruitu da eta unibertsitatearen ezaugarri nagusienetakoa izan da hasieratik.

Harreman hori hainbat baliabideren bidez gauzatzen da:

- Unibertsitateak eta enpresek elkarrekin egiten dituzte ikerketa-proiektuak; aurten 230 enpresa baino gehiagorekin.
- Enpresek unibertsitatearen kudeaketa organoetan parte hartzen dute.
- Unibertsitateak etengabeko prestakuntza eskaintzen die birziklatu eta ezagutza/ gaitasunak eguneratu beharra daukaten profesionaleri.

Ikasturte honetan zehar 7.000tik gora izan dira Mondragon Unibertsitatean prestatutako profesionalak.

- Ikasleek enpresa eta ikastetxeetan egiten dituzte praktikak eta ikasketa bukaerako proiektuak eta ikasketak eta lana txandakatzeko aukera daukate.

Enpresekiko harreman estu honi esker, unibertsitateak berehala eta etengabe jakiten du zer premia eta eskari dituzten eta era berean eredu honek enprekin harremanetan jartzeko aukera ematen die ikasleei ere, unibertsitateko ikasketetan zehar lan-munduari buruzko ezagutza praktikokoak eta errealak bereganatu ditzaten.

2019-2020 ikasturtean 1.134 ikasle izan dira titulazio amaierako proiektua egin dutenak. Era berean, 2.519 ikaslek egiten dituzte praktikak enpresa eta erakunde ezberdinetan. Egun erdiz ere lan egiteko aukera eskaintzen zaie, ikasketak eta lana uztartuz.

Beste alde batetik, 128 ikaslek hartu dute parte Eusko Jaurlaritzaren "Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa" programan, lan-esperientziaren bidez gazteen enplegarritasuna handitzeko.



ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

KIROL-ZERBITZUAREN JARDUERAK

Mondragon Unibertsitatearen kirol-zerbitzuak lau fakultateetara eta horien campusetara bideratutako ikasturteko jarduera-programa koordinatzen du, eta gainera, bere ardurapean daude unibertsitatearen lehiaketa-arloa, jarduera osagarriena, eta proiektu berriei eta zerbitzuaren etengabeko hobekuntzari dagokiona.

Ikasturtean burututako ondorengo ekintza hauek aipatu daitezke:

- Zerbitzua pandemia-egoerara egokitzea. Konfinamenduaren hasieratik, programa egokitu zen ikasleei eta langileei etxean aktibo egoten laguntzeko jarduerak eskaintzeko, bai eta deseskaladako faseetan jarduera fisikoari modu osasungarrian berrekiteko ere. Horrela, 46 jarduera berri egin dira; horietatik 18 unibertsitateko ikasleek eta langileek proposa-tutako jarduerak izan dira, eta gainerakoak pandemia-egoerara egokitutako jarduerak.
- Unibertsitateko kirolari buruzko jardunaldi nazional-etara joatea, bai eta estatuko eta nazioarteko

unibertsitateetako arduradunekin egindako bilere-tara ere. Horietan, estatu-mailako unibertsitate-kirolaren egoerari eta etorkizunari buruzko gaiak jorratu ziren.

Guztira 1.083 ikasle, 108 langilek, 15 MUKidek, 53 ikasle ohik eta unibertsitateko jendearen 61 senidek edo lagunek 2.979 inskripzio baino gehiago egin dituzte jardueretan. Ikasle parte-hartzaileen %70ak baino gehiagok bere fakultatea edo Mondragon Unibertsitatea ordezkatu du txapelketetan eta ikasle eta langileen %22 inguruk osasuna sustatzeko ekintzetan, irteeretan, kirol-ikastaroetan eta abarretan hartu du parte. Horrez gain, gero eta jende gehiagok praktikatzen du jarduera fisikoren bat bere kabuz, kirol-zerbitzuaren aholkularitzapean.

KULTURAKO ETA AISIAKO BESTE JARDUERA BATZUK

Mondragon Unibertsitateak daukan kirol zerbitzuko jarduera eskaintzaz gain, fakultate bakoitzak kultura eta aisiako jarduerak antolatzen ditu, ikasle, irakasle eta herritar ororentzat.

ATXIKITAKO IKERKETA ZENTROAK

IKERLAN

Ikerlan, BRTAko kidea, Mondragon Korporazioaren erreferente historikoa da ikerketa teknologikoaren eta bere aplikazioen arloan. Bere espezializazio-eremuak elektronikako, informazioko eta komunikazioko teknologiak, potentziako energia eta elektronika eta fabrikazio aurreratua dira.

Ikerlanen helburu nagusia ezagutza teknologikoa gure enpresetara transferitzea da, eta enpresei laguntzea eboluzio teknologikoko prozesuan. Ikerlanek EAEko enpresekin harreman estuan lan egiten du eta, lankidetzaren ondorioz, 13 milioi euro fakturatu zituen I+Gn (diru-sarrera guztien % 53a) 2019an. Ikerketa-proiektuak barne, 24,1 milioi euro fakturatu ziren guztira.

2019. Bestalde, 2019an Espezializazio Teknologikoko Plana finkatu da, zentro teknologikoaren plan estrategikoa definitutako espezializazio-eremuetan sakonduz.

Beste erakunde batzuekiko aliantzei eta lankidetzari dagokienez, Mondragon Unibertsitatearekin duen lankidetzaren estrategia nabarmendu behar da, besteak beste.

Zentroaren lehentasunetako bat ikertzaileak prestatzea da; izan ere, inbertsioa milioi bat eurotik gorakoa izan da 2019an. Aldi horretan, 57 doktore-tesi egin dira, eta 91 ikasle sartu dira prestakuntzan.

IDEKO

Ideko finkatu egin da eta erreferentziazko zentro teknologiko bihurtu da fabrikazioaren sektorean, "Manufacturing" estatu osoan, eta zenbait arlotan, baita nazioartean ere. Ideko erakundeak ikerkuntzaren emaitzak merkatura transferitzera bideratutako antolaketa-eredu bat du, I+G+b zikloa ixteko.

Bere espezialitatea "Advance Manufacturing" da, eta bere jardueran lau ikerketa-esparruren inguruan garatzen du, bai ikerketa-proiektuetan, bai industriaren eskaerei erantzuteko: fabrikazio-prozesuak, dinamika eta kontrola, doitasunezko diseinua eta ingeniaritza, eta IKTak eta automatizazioa. Espezializazio-estrategiari lotuta, Ideko aliantza eta lankidetzaren mapak euskarria ematen dio eta teknologia abiadura bizian aldatzen ari den ingurune batean korrika egiteko aukera ematen dio.




Elgoibarren dago, 112 langile ditu, horietatik % 32 doktoreak dira eta beste % 6 doktoregoa egiten ari da. Bere jarduera 2.000 m²-tik gorako prototipo-tailerreko azalera duten bi eraikinetan eta hainbat laborategitan garatzen da (doitasun ingeniartzarena, prestazio handien dinamikarena, material konposatuena, laser bidezko prozesatuena, azkenik, CNC laborategia eta fabrika digitala).

Teknologia aurreratuak enpresetara transferitzea bultzatzeko eta industriaren lehiakortasuna indartzeko, zentro teknologikoak teknologia digitalen eta doitasun handiko artezketa-soluzioen ikerketara eta garapenera bideratutako gune bat du, Digital Grinding Innovation Hub (DGIH).


Ikerketaren eta berrikuntzaren arteko elkarketa orekatuari esker, I+G+b arloan jarduera jasangarria du eta enpresek eskatzen duten balioa eskaintzen du. 2020an, zentroak hamar milioi euro inguruko diru-sarrerak izan zituen, eta horietatik % 42 eskatutako proiektuetatik etorri zen; gainerako % 58, ikerketa-proiektuetatik.

DATU EKONOMIKO AIPAGARRIAK


AURREKONTUAREN BILAKAERA UNIBERTSITATEAN DIRU-SARREREN AURREKONTUA



LANGILEEN BILAKAERA UNIBERTSITATEAN PERTSONALEAN + BEKADUNAK



INBERTSIOEN BILAKAERA UNIBERTSITATEAN



ORGANO SOZIALAK ETA ZUZENDARITZAKOAK

ERREKTORE KONTSEILUKO KIDEAK

Presidentea:

Mikel Alvarez jn.

Presidenteordea:

M^a Asun Sarrionandia and.

Idazkaria:

Amaia Pavón and.

Kideak:

José Luis Abaunz jn.

Amaia Agirre and.

Maite Antón and.

Itsaso Buruaga and.

Lander Díaz de Gereñu jn.

Zigor Ezpeleta jn.

Josetxo de Frutos jn.

Álvaro Martínez de Lagos jn.

Eñaut Muxika jn.

Oihana Otaduy and.

Aritz Otxandiano jn.

Juan María Palencia jn.

Silbia Sarasola and.

Enrique Zarate jn.

Juan Jesús Alberdi jn. (2019)

Aitor Bediaga jn. (2019)

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

Presidentea:

Mikel Alvarez jn.

Errektorea:

Vicente Atxa jn.

Errektoreorde Akademikoa:

Jon Altuna jn.

Fakultateetako Zuzendari eta Dekanoak:

Carlos García jn.

Goi Eskola Politeknikoa

Lander Beloki jn.

Enpresagintza Fakultatea

Begoña Pedrosa and.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Joxe Mari Aizega jn.

Gastronomia Zientzien Fakultatea -Basque Culinary Center-

Idazkari Nagusia eta Finantza Zuzendaria:

Idoia Peñacoba and.



Loramendi, 4
20500 ARRASATE-MONDRAGÓN
Tel. 943 71 21 85

info@mondragon.edu

www.mondragon.edu

ENTITATE LAGUNTZAILEA

